

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

**2024ko apirilaren 15a**

**Bildutakoak:**

|                                   |  |
|-----------------------------------|--|
| <b>Patxi Ibarguren Etxeberria</b> | <b>Lehendakaria<br/>eta Hernaniko Udaletik</b> |
| <b>Pepe Iparraguirre Balda</b>    | <b>Andoaingo Udaletik</b>                      |
| <b>Iratxe Begiristain Otegi</b>   | <b>Usurbilgo Udaletik</b>                      |

  

|                               |                                |
|-------------------------------|--------------------------------|
| <b>Agustín Valdivia Calvo</b> | <b>Lasarte-Oriako Udaletik</b> |
| <b>Xabier Urdangarin Lasa</b> | <b>Astigarragako Udaletik</b>  |

|                      |
|----------------------|
| <b>Akta Zenbakia</b> |
| <b>00000004</b>      |
|                      |
|                      |
| <b>Eguna</b>         |
| <b>2024/04/15</b>    |
| <b>Iraupena</b>      |
| -                    |

**Asistentzia teknikoa:**

|                             |  |
|-----------------------------|--|
| <b>Julen Gorrotxategi</b>   | <b>Mungia Idazkari-Kontuhartzailea</b> |
| <b>Helene del Río Laboa</b> | <b>Zuzendaria</b>                      |

**Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:**

|                               |                           |
|-------------------------------|---------------------------|
| <b>Jorge Segurado Iriondo</b> | <b>Urnietako Udaletik</b> |
|-------------------------------|---------------------------|

**Parte hartzen du ere**

|                     |                    |
|---------------------|--------------------|
| <b>Saioa Uzkino</b> | <b>Itzultzaila</b> |
|---------------------|--------------------|

**Gai Zerrenda**

- |   |  |
|---|--|
| 1.- 2024/03/11(e)an eta 2024/02/19n egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.               | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 11/03/2024 y 19/02/2024.     |
| 2.- EMAKTIVA programaren aurkezpena   | 2.- Presentación del programa EMAKTIVA   |
| 3.- Turismoa: Basquetour (entitate referente aldaketa eta programen inguruko aurrerapausoak) eta GFaren eskakizuna adieraztea | 3.- Turismo: Declaración de Basquetour (cambios de entidad referente y avances en programas) y exigencia de la DFG |
| 4.- Tokiko Enplegu Ekintzak (TEE) nola antolatuko diren erabakitzea   | 4.- Decidir cómo se van a gestionar las Acciones Locales de Empleo (ALE)   |
| 5.- Iraunkortasunean emango diren aurrerapausoak tratatzea  | 5.- Tratar los avances en sostenibilidad   |
| 6.- Egitasmoen eguneraketa  | 6.- Actualización de los proyectos   |
| 7.- Kudeaketa Aginduko justifikapenen berri ematea 2023ko   | 7.- Informar de las justificaciones de la Orden de Gestión 2023  |
| 8.- Mankomunitateko Plan Estrategikoa egiteko asmoa jakinaraztea  | 8.- Informar sobre la voluntad de realizar un Plan Estratégico para la Mancomunidad                                |

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

- 9.- Laneratze-empresa kontratatzeko 9.- Aprobar el convenio para la contratación  
hitzarmena onartzea de la empresa de inserción  
10.- Galdera, erregea eta proposamenak. 10.-

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

**1.- 2024/03/11(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2024/03/11 eta 2024/02/19 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du.

Gobernu Batzordeak 2024/02/19ko akta aho batez onartu du.

2024/03/11ko aktaren gainean Zuzendariak ekarpen txiki bat egin du, beraz, hori aldatu ondoren, Gobernu Batzordeko kideei helaraziko zaie hurrengo batzordean aldaketak onartzeko.

**2.- EMAKTIVA programaren aurkezpena**

EDE FUNDAZIOko langilea, Igone Virto, etorri da aurkezteria 2023 eta 2024 urtean EMAKTIVA programaren gainean egindako lanketa. Txosten bat banatu du partehartzaileen artean, bere hitzaldia jarraitzea errazteko.

Astigarragako ordezkariak galdu du ea badaukagun txosten hori email bidez bidaltzerik, eta Zuzendariak baietz esan dio, Igonek azken ale hau helaraztean bidaliko diela Gobernu Batzarkide guztiei.

**3.- Turismoa: Basquetour (entitate referente aldaketa eta programen inguruko aurrerapausoak) eta GFaren eskakizuna adieraztea**

Zuzendariak adierazi du GFAk turismo alorreko lankidetza hitzarmena sinatu eta 50.000€ko finantzaketa emateko BBMRI lanaldi osoan turismoan diharduen pertsona bat izatea eskatzen dutela. Beraz, etorkizunera begira, ikusi beharko litzateke BBMn nola beteko den irizpide hau.

Bestalde, Basquetourrekin bildu ziren Zuzendaria, Iraunkortasun eta Turismo Teknikaria, eta Ainhoa (Behemendi) eta bertan adierazi zieten turismo erreferente Behemendi izatetik BBM izateko aldaketa egitea erraza dela. Gobernu Batzordeak aldaketa onartu eta Basquetourri jakinarazi beharko litzaiokela. Kasu honetan ez dugu

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

gaia bozkara eramana lehiakortasun egitasmoak martxan daudelako eta horiek gauzatzeko Behemendiko langile bat behar dugulako, hortaz, aurrerago egingo dugu lehiakortasun egitasmoek bere bidea jarraitu ahal izan dezaten.

Azkenik, esan Basquetourrek adierazi digula helmuga turistiko adimendu bihurtzeko momentu aproposean gaudela, diagnosi eta ekintza-plana egin behar delako Europar Batasuneko irizpideen arabera. Helmuga izateko kode etikoan ere sartu behar da baina hori konpromezu programa bat da. Informazio gehiago izateko Basquetour bera etorriko da hurrengo Gobernu Batzarreko bilerara hori dena azaltzen idatziz informazioa eskatu dugunean hala egitea nahiago dutela adierazi digutelako.

**4.- Tokiko Enplegu Ekintzak (TEE) nola antolatuko diren erabakitzea**

Zuzendariak hartu du hitza eta azaldu du puntu hau batzordean garatu ahal izateko, aldez aurretik txosten orokor bat bidali zaiela. Horri jarraituz hurrengo puntuak landu dira:

- Lanbidek, Mankomunitateak bezala, ikusten duela kontratazioak udalek egin behar dituztela (langileen legez kanpoko lagapena dela eta), baina gainontzeko beste barne-ian guztia Mankomunitateak egitea (proiektua idatzi, hautaketa-prozesuak, justifikapena...) lana eta harremana errazteko asmoz.
- 1. Mota bakarrik edo 2. Motan ere sartuko ginatekeen. Bietan sartzeko asmoa adierazi da.
- Kontratatutako pertsonak lanpostu ez egonkorra betetzeko egiteko pentsatua dagoela, eta ez, orain arte bezala, lanpostu egonkorra betetzeko (ofizialak eta peoiak, batik bat). Aurten, hala ere, berdin jarraitu ahal izango dugula uste da.
- Formakuntza emango ote zaien edo ez. Posible bada baiezkoa atera da.
- Programaren jarraipena egingo lukete: Enarak, Asier Gutierrezek eta TEEen bidez kontratatutako pertsonak. Izan ere, lan kargari aurre egiteko enplegu teknikari bat TEEen bidez 5-6 hilabetetarako hartzea proposatzen da eta proposamena ondo ikusitzat hartu da.
- Mahai politiko-tekniko edo teknikoa egitea adostea. Zuzendariak adierazi du denboraz larri gabiltzanez komeniko litzakeela gaurko bileran ildo edo puntu orokor eta garrantzitsuenak adostea, eta ondoren agian mahai teknikoa deitzea. Onatzat hartu dute batzarkideek.

Andoaingo ordezkariak galdu du ea ez ote den gehiegiz 2. motako lerroa hartzea, ea Mankomunitatea gai den horrek suposatzen duen lan-karga eramateko. Zuzendariak erantzun dio TEEen bidez kontratatuko den langilea besteak beste horretarako dela.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

Astigarragako ordezkariak esan du 2. Motako lerro horrek, batez ere, bi gauza suposatzen dituela:

- Definizio lana: zer enpresak kontratu dezakeen, zer sektorekoak, zer pertsonek eman dezaketen izena (adina, langabetua edo ez...).
- Kudeaketa: lan-burokratikoa (administratiboa).

Zuzendariak adierazi du beste garapen agentzietaian lan kargak zer suposatzen duen galdetuko dutela.

Usurbilgo ordezkariak adierazi du bere udalean gai hauek beti eraman dituen pertsona bajan dagoela eta, beraz, berak ez lukeela berrikuntza gehiegirik sartuko.

Lasarte-Oriako ordezkariak azaldu du beraiek ados daudela baina ez dutela Kudeaketa Agindu gehiagorik sinatuko, izan ere, Mankomunitateak autonomoki funtzionatu behar du. Zuzendariak argitu dio Lanbide eta Mankomunitatea proposatzen ari dena dela udalek pertsonen kontratazioak (Gizarte Segurantzan altan ematea, nominak eta ezer gutxi gehiago) bakarrik egitea (legalki horrela egin behar baita), eta gainontzeko guztia Mankomunitateak egitea (eskaera, formakuntza, hautaketa-prozesuak, jarraipena, justifikazio...). Hori horrela bada, ondo iruditu zaio.

Andoingo ordezkariak adierazi du bere udalean gai hauek eramaten dituena bajan dagoela eta Usurbilgo ordezkariak ere esan du bere teknikaria aste honetan oporretan dagoela. Horregatik, mahaia teknikoko deialdia gehiegi ez luzatzeko apirilaren 23, 9:30tan deituko dela adierazi du Zuzendariak. Horren berri enpleguko udal-teknikariei emango zaiela.

Bestalde, datak finkatzen bukatzean, datorren Gobernu Batzarreko bilera apirilaren 29n, 12:30tan egingo dela adierazi da eta bertan emango zaiola oniritzia mahai teknikotik ateratako lanketari.

**5.- Iraunkortasunean emango diren aurrerapausoak tratatzea**

Zuzendariak adierazi du martxoaren 18an egin zen mahai politiko-teknikotik atera ziren ondorioekin zer egingo den erabaki behar dela, hau da, lanketarekin nola egingo den aurrera. Aurrerapausoak emateko Astigarragako ordezkariak beste mahai bat deitzea proposatu du lanketa sakontzeko, izan ere, bilera horretan lan-ildo orokorrak

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

atera baitziren (eta ondo ikusten dituzte), baina egia da gaia lantzen jarraitu behar dela ondorio zehatzak onartu arte. Projekturen baten lanketarekin egin daiteke aurrera agian.

Hortaz, Mankomunitateak lanketa sakonduko du eta hurrengo mahai politiko-teknikoa deituko da gaia finkatzen joateko.

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du Mankomunitateko udalerri bakoitzak bere energia plan propioa duela, hortaz, ez omen zaiola zaila iruditzen Eskualdeko plan energetikoa sortzea. Hori lortzeko, udalerri bakoitzaren energia plan indibidualak elkartu eta doitu egin beharko dira eta, horregatik, iruditzen zaio ez dela finantzazio gehiegirik behar horretarako. Zuzendariak erantzun dio kontratu txiki bat egiteko asmoa dagoela honetarako eta GFAk finantzatzen duela.

#### **6.- Egitasmoen eguneraketa**

Zuzendariak martxan dauden edo martxan jartzear dauden egitasmoen eguneraketa egin du:

- ETE Digitala: Udal bakoitzeko enpresa bat lortzen saiatu gara, baina Andoain, Lasarte-Oria eta Urnieta kostatzen ari zaigu. Astigarraga, Hernani eta Usurbileko enpresekin lanketan ari gara jada. 5 enpresek parte hartu dezakete egitasmo honetan , beraz, bi falta zaizkigu. Ez dago arazorik herriren bateko enpresak lanketa honetan sartzen ez badira Hazinnova egitasmoa laster martxan jarriko delako eta ETE Digitala baino zabalagoa delako, nahi haina enpresa aurkeztu ditzakegu egitasmo horretan.
- Hazinnova maiatzerako martxan jartzea espero dugu. Enpresekin digitalizazio arloan lanketa egiten da baina modu orokorrean: marketinean, nazioartekotzean, kudeaketan...
- Merkatari eta ostalarientzat formakuntzak: jakina denez herri bakoitzean desberdin lantzen ari gara gai hau, merkataritza oso herriko kontua delako. Orain arte, Astigarragako merkatarien elkarrekin oniritzia eman digu eta formakuntzak antolatzea erabaki da. Hernanin antzoko egoera izan da, hortaz, formakuntzak antolatzen ari gara. Lasarte-Orian Aterpearekin harremanetan egon gara gure asmoa komentatuz baina ez digute erantzunik eman. Andoainen ere ez digute erantzunik eman. Usurbilen Siadecok interes eza adierazi digu. Azkenik, Urnieta Udalarekin egin da lanketa hark dinamizatzen baititu merkatariak. Erantzunik jaso ez dutenez formakuntzen ideia bertan behera uztea erabaki da.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

- Enpresetan energia analisiak: martxan jartzear gaude. Ez dira auditoretza energetikoak bezain sakonak baina informazio eta gomendio batzuekin enpresek kontsumoa murriztu eta milaka euro aurrezteko aukera izaten dute.
- -Elkar Ekin: azken batzordean adierazi genuen EAGIrekin aurreikusita genuen formakuntza ezingo zela aurrera eraman. Kontua, ordea, erabat aldatu da. Izen ere, Lanbidek “encomienda” ebatzi du eta apirila erdian EAGIk formakuntza martxan jarriko du. Pladurrekoia izan ordez igeltserotzakoa izango da, Pladurreko irakaslea Donostiako Sustapenak beste formakuntza batean du eta. Hala ere, laneratze tasa antzekoa dutela adierazi digute.
- Turismoan: lehiakortasun programak martxan daude jada (kode etikoa, Euskadi gastronomika, familia turismo...).

**7.- Kudeaketa Aginduko 2023ko justifikapenen berri ematea**

Idazkari-kontuhartzailaek adierazi du 2023. Urteko kudeaketa aginduko justifikapena udal guztiek egin dutela, eta hori 2024ko udal-ekarpenetik doituko dela. Udal guztiek, gutxi gorabehera, aurreikusitako gastuak justifikatu dituzte, Andoainek izan ezik, aurreikusitakoa baino askoz gehiago justifikatu baitute.

Andoingo ordezkariak erantzun du berari esan diotena dela aurreikuspenean 2023ko ekaina arte bakarrik kalkulatu zutela (udal-hauteskundeak arte), baina gainontzekoa ez omen zuten aurreikusi.

**8.- Mankomunitateko Plan Estrategikoa egiteko asmoa jakinaraztea**

Idazkari-kontuhartzailaek adierazi du barne-mailan Mankomunitateko Plan Estrategiko bat garatzeko beharra ikusi dela, izan ere, garrantzitsua da Mankomunitateak norantza jakin bat izatea, eta jakitea zer eta zertarako landuko diren lan-iloko desberdinak. Gainera, Plan hau modu parte-hartzalean egitea espero da (udal, erakunde eta eragile desberdinekin batera).

Gainera, Zuzendariak gehitu du batetik departamentuetan lan lerroak zabaldu behar ditugula (enpleguan kasu, enplegu zaurgarritik haratago. Adb: 45-55 urte inguruko langabetuak, eskualdean asko baitaude). Horretaz gain, gure barne antolakuntzarako ere komenigarria dela, horrela ez baikara aldiro Gobernu Batzarreko onespenaren zain egon behar eta proiektuak aurkezteko epe laburrak ditugunean jakingo dugula zein proiektu aurkezu behar ditugun.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

Inork ez du ezer esan puntu honetan.

**9.- Laneratze-empresa kontratzeko hitzarmena onartzea**

Idazkari-kontuhartzailak adierazi du laneratze-empresa bat kontratzeko lizitazio bateratuak aurrera jarraitu dezan, ezinbestekoa dela onartzea hitzarmena non harreman horizontal horiek arautuko eta erregulatuko diren.

Hitzarmen hori aldez aurretik partehartziale guztiei bidali zaie eta I eranskina beteta bakarrik Andoainek eta Hernanik bidali diote idazkari-kontuhartzailari. Lasarte-Oriak excel bat bidali du gaur goizeko 12:00tan.

Astigarragako ordezkariak adierazi du emaila berriro bildatzea badezpada, beste email batzuen artean galdu ez ote denaren susmoa baitu.

Usurbilgo ordezkariak esan du beraiek aurten gutxienez ez direla sartuko lizitazio bateratuan, ez baitakite zer lan eman liezaieketen laneratze-empresakoei. Brigada handia dute eta momenturen batean lanen bat eskatu behar badie, kontratu txiki bidez egingo dutela adierazi du.

Gai Zerrendaz kampo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

**10.- Galdera, erregu eta proposamenak.**

Zuzendariak adierazi du Mankomunitateko barne buletina bidali zaiela udal guztiei eta hemendik aurrera hilabete bakoitzeko lehenengo asteartean jasoko dutela.

Udal bakoitzak ikusi behar duela nori bidali buletin hau eta zuzendariak gomendatu du ahalik eta departamentu gehienei bidaltzeko, nola edo ahala, denak jakinaren gainean egoteko Mankomunitateko jardueraz. Hala, edozein saileko Udal teknikarik Udalak berak erantzuna emateko egitasmorik ez duenean mankomunitateko jardueraren batera bidali ahal izango duelako hartzalea.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia. Batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriaz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº**  
**Lehendakaria**

**11.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión del 11/03/2024.**

En primer lugar, la Presidenta somete a votación el acta correspondiente a los días 11/03/2024 y 19/02/2024.

El acta de 19/02/2024 ha sido aprobada por unanimidad por la Junta de Gobierno.

Sobre el acta del 11/03/2024 la Directora hace una pequeña aportación, por lo que una vez modificada la misma se trasladará a los miembros de la Junta de Gobierno para su aprobación en la próxima Junta.

**12.- Presentación del programa EMAKTIVA**

Acude la trabajadora de FUNDACIÓN EDE, Igone Virto, a presentar el trabajo realizado sobre el programa EMAKTIVA en los años 2023 y 2024. Reparte un informe entre los participantes para facilitar el seguimiento de su intervención.

El representante de Astigarraga pregunta si podemos enviar dicho informe vía email y la Directora dice que sí, Igone lo enviará a todos los miembros de la Junta de Gobierno cuando se haga llegar este último número.

**13.- Turismo: Declaración de Basquetour (cambios de entidad referente y avances en programas) y exigencia de la DFG**

La Directora indica que la DFG solicita que para la firma del convenio de colaboración en materia de turismo y la concesión de una financiación de 50.000 €a BBM tiene que haber una persona dedicada al turismo a jornada completa. Por lo tanto, de cara al futuro, habría que ver cómo se va a cumplir este criterio en BBM.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

Por su parte, la Directora, la Técnica de Sostenibilidad y Turismo y Ainhoa (Behemendi), se reunieron con Basquetour y se les explicó que es fácil hacer un cambio de referente turístico de Behemendi a BBM. La modificación debería ser aprobada por la Junta de Gobierno y comunicada a Basquetour. En este caso no hemos sometido el asunto a votación porque los proyectos de competitividad están en marcha y para llevarlos a cabo necesitamos un trabajador de Behemendi, por lo que lo haremos más adelante para que los proyectos de competitividad puedan seguir su curso.

Por último, Basquetour nos ha dicho que estamos en el momento adecuado para convertirnos en un destino turístico inteligente, ya que hay que realizar un diagnóstico y un plan de acción según los criterios de la Unión Europea. Para tener un destino también hay que incluirlo en el código ético, pero eso es un programa de compromiso. Para más información, el mismo Basquetour acudirá a la próxima reunión de la Junta de Gobierno porque cuando hemos solicitado información por escrito, nos han indicado que prefieren hacerlo así.

**14.- Decidir cómo se van a organizar las Acciones Locales de Empleo**

Toma la palabra la Directora para comentar que para poder desarrollar este punto en la Comisión, previamente se les ha remitido un informe general. En este sentido se han trabajado los siguientes puntos:

- Lanbide, al igual que la Mancomunidad, ve que las contrataciones deben ser realizadas por los ayuntamientos (por cesión ilegal de trabajadores), pero que el resto del trabajo interno se realice por la Mancomunidad (redacción del proyecto, procesos de selección, justificación...) con el fin de facilitar el trabajo y la relación.
- Sólo tipo 1 o entramos también en el tipo 2. Se manifiesta la intención de incorporarse a ambas.
- Que las personas contratadas están pensadas para desempeñar puestos de trabajo no estables y no en puestos de trabajo estables como hasta ahora (oficiales y peones principalmente). Este año, sin embargo, se espera que podamos seguir igual.
- Si se les dará formación o no. Si es posible, ha salido sí.
- Seguimiento del programa por parte de Enara, Asier Gutierrez y personas contratadas a través de la ALE. De hecho, se propone la contratación de un técnico de empleo para 5-6 meses y para hacer frente a la carga de trabajo, a través de los ALE, y se da por buena la propuesta.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

- Acordar la celebración de una mesa político-técnica o técnica. La Directora dice que dado que andamos mal de tiempo, convendría acordar en la reunión de hoy las líneas o puntos generales y más importantes, y luego quizás convocar la mesa técnica. Lo dan por bueno los junteros y junteras.

El representante de Andoain pregunta si no es demasiado tomar la línea tipo 2, si la Mancomunidad es capaz de llevar la carga de trabajo que supone. La Directora contesta que el personal que se va a contratar a través de las ALE es para eso, entre otras cosas.

El representante de Astigarraga comenta que esta línea tipo 2 supone, sobre todo, dos cosas:

- Trabajo de definición: empresas que pueden contratar, sector al que pertenecen, personas que pueden inscribirse (edad, desempleo o no...).
- Gestión: trabajo burocrático (administrativa).

La Directora dice que preguntará en otras agencias de desarrollo qué supone la carga de trabajo.

La representante de Usurbil señala que la persona que siempre ha llevado estos temas en su ayuntamiento está de baja, por lo que ella no introduciría más novedades.

El representante de Lasarte-Oria manifiesta que están de acuerdo pero que no firmarán más Encomiendas de Gestión, ya que la Mancomunidad debe funcionar de forma autónoma. La Directora le aclara que lo que están proponiendo Lanbide y la Mancomunidad es que los Ayuntamientos realicen exclusivamente las contrataciones de personas (alta en la Seguridad Social, nóminas y poco más) (porque legalmente hay que hacerlo así) y que el resto lo haga la Mancomunidad (solicitud, formación, procesos selectivos, seguimiento, justificación...). Si es así, le parece bien.

El representante de Andoain manifiesta que el que lleva estos temas en su ayuntamiento está de baja y la representante de Usurbil también comenta que su técnico está de vacaciones esta semana. Por ello, la Directora indica que para no dilatar en exceso la convocatoria de la mesa técnica se convocará a las 9:30 horas del día 23 de abril. Se informará al personal técnico municipal de empleo.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

Por otra parte, para finalizar con el señalamiento de fechas, se señala que la próxima reunión de la Junta de Gobierno se celebrará el próximo 29 de abril a las 12:30 horas, donde se dará el visto bueno a la elaboración extraída de la mesa técnica.

**15.- Tratar los avances en sostenibilidad**

La Directora dice que hay que decidir qué se va a hacer con las conclusiones que se sacaron de la mesa político-técnica que se celebró el 18 de marzo, es decir, cómo se va a avanzar con la elaboración. El representante de Astigarraga propone que se convoque otra mesa para profundizar en el trabajo, ya que en esa reunión salieron las líneas generales de trabajo (y las ven bien), pero es cierto que hay que seguir trabajando el tema hasta que se aprueben las conclusiones concretas. Quizás se pueda avanzar con la elaboración de algún proyecto.

Por tanto, la Mancomunidad profundizará en la elaboración y se convocará la próxima mesa político-técnica para ir abordando el tema.

El representante de Lasarte-Oria comenta que cada municipio de la Mancomunidad tiene su propio plan energético, por lo que no le parece difícil crear un plan energético comarcal. Para conseguirlo, deberán agruparse y ajustarse los planes energéticos individuales de cada municipio, por lo que considera que no es necesaria una financiación excesiva. La Directora contesta que la intención es realizar un contrato menor para este fin y que está financiado por la DFG.

**16.- Actualización de proyectos**

La Directora realiza una actualización de los proyectos en marcha o en proceso de puesta en marcha:

- PYME Digital: hemos intentado conseguir una empresa por Ayuntamiento, pero nos están costando Andoain, Lasarte-Oria y Urnieta. Ya estamos trabajando con las empresas de Astigarraga, Hernani y Usurbil. En este proyecto pueden participar 5 empresas, por lo que faltan dos. No hay problema si las empresas de algún municipio no entran en esta tarea porque el proyecto Hazinnova se pondrá en marcha en breve y al ser más amplio que la PYME Digital, podemos presentar a todas las empresas que queramos.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

- Esperamos poner en marcha Hazinnova para mayo. Se trabaja con las empresas en el área de digitalización pero de forma general: marketing, internacionalización, gestión...
- Formaciones para comerciantes y hosteleros: como es sabido, estamos trabajando este tema de manera diferente en cada localidad, porque el comercio es una cuestión de cada localidad. Hasta el momento, la asociación de comerciantes de Astigarraga nos ha dado el visto bueno y se ha decidido organizar las formaciones. En Hernani ha habido una situación similar, por lo que estamos organizando las formaciones. En Lasarte-Oria hemos estado en contacto con Aterpe comentando nuestra intención pero no hemos recibido respuesta alguna. En Andoain tampoco nos han respondido. En Usurbil Siadeco nos ha manifestado desinterés. Finalmente, en Urnieta se ha trabajado con el Ayuntamiento, que es quien dinamiza a los comerciantes. Ante la falta de respuesta se ha decidido abandonar la idea de las formaciones.
- Análisis energéticos en empresas: estamos a punto de ponerlo en marcha. Son menos profundas que las auditorías energéticas, pero con algunas informaciones y recomendaciones las empresas pueden reducir su consumo y ahorrar miles de euros.
- Elkar-Ekin: en la última comisión dijimos que la formación prevista con EAGI no se podría llevar a cabo. Sin embargo, la cuestión ha cambiado radicalmente. De hecho, Lanbide ha resuelto la "encomienda" y a mediados de abril EAGI pondrá en marcha la formación. En vez de Pladur será de albañilería, ya que el profesor de Pladur está en otra formación de Fomento de San Sebastián. Sin embargo, nos indican que tienen una tasa de inserción similar.
- En turismo: ya están en marcha los programas de competitividad (código ético, Euskadi gastronómica, turismo familiar...).

**17.- Informar de las justificaciones de la Orden de Gestión 2023**

El Secretario-Interventor manifiesta que la justificación de la orden de gestión anual 2023 ha sido realizada por todos los ayuntamientos, que se ajustará desde la aportación municipal de 2024. Todos los ayuntamientos, aproximadamente, han justificado los gastos previstos, salvo Andoain que lo ha justificado muy por encima de lo previsto.

El representante de Andoain responde que en la previsión sólo lo habían calculado hasta junio de 2023 (hasta las elecciones municipales), pero que el resto no lo habían previsto.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**  
**2024ko apirilaren 15a**

**18.- Comunicación de la intención de elaborar el Plan Estratégico de la Mancomunidad**

El Secretario-Interventor señala que internamente se ha visto la necesidad de desarrollar un Plan Estratégico de la Mancomunidad, ya que es importante que la Mancomunidad tenga una dirección determinada y que se conozca qué y para qué se van a trabajar las diferentes líneas de trabajo. Además, se espera que este Plan se elabore de forma participativa (junto con los diferentes ayuntamientos, instituciones y agentes).

Además, la Directora añade que por un lado tenemos que abrir líneas de trabajo en los departamentos (por ejemplo en el empleo, más allá del empleo vulnerable). Ej. Parados en torno a los 45-55 años, debido al elevado número de personas en la comarca). Además, es conveniente para nuestra organización interna, ya que de esta forma no hay que esperar periódicamente a la aprobación de la Junta de Gobierno y que cuando tengamos plazos cortos para presentar los proyectos sabremos qué proyectos vamos a presentar.

Nadie ha dicho nada en este punto.

**19.- Aprobación del convenio para la contratación de una empresa de inserción**

El Secretario-Interventor señala que para que continúe adelante la licitación conjunta para la contratación de una empresa de inserción, es imprescindible que se apruebe un convenio en el que se regulen estas relaciones horizontales.

Dicho convenio ha sido remitido previamente a todos los participantes y el anexo I cumplimentado sólo ha sido remitido al Secretario-Interventor por Andoain y Hernani. Lasarte-Oria ha enviado un excel a las 12:00 de esta mañana.

El representante de Astigarraga indica que por si acaso se vuelve a mandar el email, ya que hay sospechas de que se haya perdido entre otros correos.

LA representante de Usurbil comenta que ellos al menos este año no se van a incluir en la licitación conjunta porque no saben qué trabajo podrían dar a la empresa de

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

**2024ko apirilaren 15a**

inserción. Tienen una brigada grande y dice que si en algún momento les va a pedir algún trabajo lo harán mediante un contrato menor.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos

**20.- Preguntas, sugerencias y propuestas.**

La Directora dice que se ha enviado el boletín interno de la Mancomunidad a todos los Ayuntamientos y que de ahora en adelante lo recibirán el primer martes de cada mes.

Cada Ayuntamiento debe ver a quién remitir este boletín y la Directora recomienda que se envíe al mayor número posible de Departamentos para que todos estén informados de la actividad de la Mancomunidad. Así, cuando el propio Ayuntamiento no disponga de un proyecto de respuesta por parte de un técnico municipal de cualquier departamento, podrá remitir al destinatario a alguna actividad de la mancomunidad.

Y a falta de más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria. Redactado el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E.,/Vº Bº  
La Presidenta**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2024BG010004-akta/acta (BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA)